

GUNE KOMUNITARIOEN KUDEAKETAREN GAINEKO JARDUNALDIAK




Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala



ORDEN DE
SALESIANAS
ZAHARRAK BERRI

Plazara!

ANTZARA
Mendillorri



SARRERA

Iruñean une honetan hiru prozesu daude aktibo, herritarrek kudeatzeko zentro komunitario bana irekitzeko xedez, hala nola *Plazara!*, *Renove Salesiana-Zaharrak Berri* eta *Antzara*. Ildo horretan, prozesu bakoitzak bere erritmoa eta berezitasunak ditu, baina era berean hainbat fasetan antzeko edo hurbileko gaiak lantzen dituzte. Kudeaketa da gai horietako bat, prozesu horien gai nagusia dela ere esan daiteke, eta gune komunitario horien kudeaketa-eredua finkatuko duen erabakia hartzeko beharrezkoa da gai horri buruzko prestakuntza jasotzea, baita gaia eztabaidatzea ere.

Zentro bakoitza arautuko duen kudeaketa-eredua bilatu eta erabakitzeko bide horretan, sinergiak sortzeko aukera dagoela ikusi dugu, eta hiru prozesuek elkarrekin Gune Komunitarioen Kudeaketari buruzko Prestakuntza Jardunaldi batzuk antolatzea erabaki dugu. Ildo horretan, ekimenak bi funtsezko helburu ditu; alde batetik, adierazi dugun bezala, zentro komunitarioen kudeaketari lotutako prestakuntza, eta bestetik, Iruñeko gune komunitarioen sarea egiten hastea.



ZINEFORUM ZIKLOA

MAIATZAREN 30A, ASTEARTEA | 18:00 | TXANTREAKO LIBURUTEGIA

▶ **Herritar guneak, sorkuntza eta ekoizpen artistikorako eremuak.**

Proiektzioa: Tabacalera: cultivando autogestión. 2014, 55 min.

Dinamizatzailea: Juan José Diaz (Campo Creativo Cero).

MAIATZAREN 31, ASTEAZKENA | 17:00 | CALDERERIA ARETOA

▶ **Herritar guneak publikoa-pribatua-komuna hirukoan, haien zeregina hiria egiteko modu berri batean.**

Proiektzioa: *Com un Gegant Invisible. Can Batlló i les Ciutats Imaginareis* (Erraldoi ikusezin bat bezala. Can Batlló eta hiri imaginarioak). 1h 05 min.

Dinamizatzailea: Juan José Diaz (Campo Creativo Cero)

EKAINAREN 1A, OSTEGUNA | 18:00 | KONDESTABLEAREN JAUREGIA

▶ **Aniztasuna gizarte-guneen gestioan: autogestioa, kogestioa, gestio partaidetua, eta abar.**

Proiektzioak:

▶ “I Encuentro de la Red de Espacios Ciudadanos” Bideoaren zatia, Madrid (2016). 33 min.

▶ Betiko fabrikari buruzko bideoa, “LaFábrica detodalavida. El inicio.” (2015). 17 min.

▶ “9barris L' Ateneu Popular 9 Barris: un equipament de gestió comunitària” bideoa (2017). 12:41 min.

▶ La Harinera-ri buruzko bideoa. #(h)aurkezpen-kliparen irekiera (2016). 5 min.

Dinamizatzailea: Juan José Diaz (Campo Creativo Cero).



PRESTAKUNTZA-JARDUNALDIAK

EKAINAREN 8A, OSTEGUNA | 17:00-20:00 | TXANTREAKO LIBURUTEGIA

- ▶ **Inaugurazioa:** Alberto Labarga (Herritarren Partaidetzako Zinegotzia) eta prozesuetako Talde Eragile bakoitzeko pertsona bat.
- ▶ **3 prozesuen eta udalak zentro komunitarioei buruz duen politikaren aurkezpena.** Prozesuetako Talde Eragile bakoitzeko pertsona bat eta Axel Moreno (Partaidetza Arloko zuzendaria).
- ▶ **Talde-laneko dinamika, zentro komunitarioen kudeaketari lotutako hasierako zalantzak eta beldurrak azaltzek.** Dinamizazioa Iruñeko Udalaren Herritarren Partaidetzako Arearen kargura.



EKAINAREN 9A, OSTIRALA | 17:00-20:00 | KONDESTABLEAREN JAUREGIA

▶ **17:00 - 18:30 Osoko bilkurako formatuko kudeaketa-eredu gisa hautatutako 5 esperientzien eta prestakuntzaren oinarri izango diren 5 ardatzen aurkezpena:**

1. Can Batlló, Bartzelona - Ferran Aguiló.
2. Espacio Vecinal Arganzuela (EVA), Madrid - Sacramento Garciarayo y Manuel González.
3. La Casa Invisible, Málaga - Kike España.
4. Astra, Gernika.
5. Ayuntamiento de Barcelona - Laia Forné.

Bartzelonako Udala: Xabier Errea (Iruñeko Udaleko Partaidetza Teknikaria).

Lan-ardatzak:

- a.** Antolaketa eta funtzionamendua. **b.** Finantzaketa. **c.** Programazioa. **d.** Lurraldearekiko harremanak. **e.** Erakundeeiko harremanak.

- ▶ **18:45 - 20:00 1. lan-tailerra: Erakundeekiko harremanak.**
Laia Fornéren orientazioa eta Iruñeko Udalaren Dinamizazio Komunitarioko Zerbitzuak Dinamizatua.



EKAINAREN 10A, LARUNBATA | 9:30 | KONDESTABLEAREN JAUREGIA

- ▶ **9:30** Topaketaren irekiera eta dinamiken azalpena.
- ▶ **10:00 - 10:30** 1. taldea. Antolaketa eta funtzionamendua.
- ▶ **10:45 - 11:15** 2. taldea. Finantzaketa.
- ▶ **11:15 - 11:45** Atsedena.
- ▶ **11:45 - 12:15** 3. taldea. Programazioa.
- ▶ **12:30 - 13:00** 4. taldea. Lurraldearekiko harremanak.
Orientatzaileak: Can Batlló, EVA, La Casa Invisible eta Astra.
Dinamizazio Komunitarioko Zerbitzuak Dinamizatua 4 lan-taldetan,
kontalariekin.
- ▶ **13:00 - 13:30** Atsedena.
- ▶ **13:30 - 14:30** Jardunaldiak ixteko osoko bilkura, lan-tailerretan landutakoaren bateratze-lana eginez. Kontalarien azalpena eta hitz egiteko txanda.

Jardunaldietan Ludoteka Zerbitzua egongo da 4 eta 12 urte bitarteko neska-mutilentzat, Forora bertaratzea eta familiako erantzukizunak bateragarri egin ahal izateko. Plaza mugatuak dira, eta zerbitzua gutxienez ere 24 ordu lehenago eskatu (izena eman) behar da. Ludotekako plazak erreserbatzeko Herritarren Partaidetzako Zentroarekin jar zaitezke harremanetan : 948 420 266 telefono-zenbakian edota honako e-mail honetan: participacionciudadana@pamplona.es



Jardunaldiak DOAN dira, baina guneak eta dinamikak antolatu behar direnez, gomendatzen dugu aldez aurretik izena ematea on line, ekainaren 6a azken eguna izanik, edo bestela ondorengo inprimakia Kondestablearen Jauregiko bigarren solairuan dagoen “espacio colaborativo - elkarlaneko gunean” entregatuz.

Jardunaldiak hasten diren egunean ere izena eman ahal izango duzu bertan, plazarik geratzen bada.



FORMULARIOA

Izen-abizenak

Jaiotzaren urtea

Sexua

Gizarte-erakundea
edo kolektiboa

Telefonoa

E-maila

Nondik dator jardunaldiekiko duzun interesa?

- 1. Gizarte-gaietako ikaslea
- 2. Gizarte-eremuko profesionala
- 3. Kulturako profesionala
- 4. Auzoan bizi naiz
- 5. Gizarte-mugimenduan sartuta nago

Martxan jartzen ari diren Zentro Komunitarioetakoren batean parte hartzeko interesik ba al duzu?

- 1. Plazara!
- 2. Renove Salesianas Zaharrak Berri
- 3. Antzara
- 4. Besteak:

DATUEN BABESA: Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 1999-12-13ko Lege Organikoan ezarritakoa betez, jakinarazten dizugu inprimaki honetan emandako datu pertsonalak Administrazio honen berezko eskumenak bakarrik egikaritzeko erabiliko direla eta Iruñeko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan sartuko direla; eta haren aurrean datuetan sartzeko, zuzentzeko eta haien aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzu Erregistro Orokorrean zuzenduz (Kondestablearen Jauregia, Kale Nagusia, 2. 31001 Iruñea).

